

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak ingelesean murgiltzeko udako programako 2.588 plazaren deialdia egin du Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat

*Plaza eskatzeko epea martxoaren 10ean amaitzen da, eguneko nahiz bertan egindako ikastaroetan*

Jueves, 01 de marzo de 2012

Nafarroako Gobernuak [ingelesean murgiltzeko udako programako 2.588 plaza](#) betetzeko deialdia egin du Nafarroako ikastetxeetako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat, ekainetik irailera bitarte egiten dena.

Programak 190.720 euroko kostua du, eta parte hartzen duten ikasleek ingelesez komunikatzeko maila hobe dezatela bilatzen du; beren prestakuntza integralean lagundu hizkuntz, komunikazio oztopoak eta oztopo pertsonalak gainditzeko lagunduz; eta hizkuntzen izaera funtzionala sustatu. Plaza eskatzeko epea martxoaren 10ean amaitzen da.

Eskainitako plazak honako era honetan banatzen dira:

-Eguneko ikastaroak Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5. mailako 1.748 ikasleentzat gehienez ere, Iruñean, Tuteran, Tafallan, Lekarozen, Corellan, Zangozan, San Adrianen eta Azkoienen. Bost egun irauten dute, asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 14:30era (bazkaria ez da sartzen).

- Bertan ematen diren ikastaroak Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 540 ikaslerentzat, gehienez ere. Zazpi egun irauten dute, igandetik larunbatera, mantenu osoz Irunberriko "Sierra de Leyre" BHIko egoitzan.

Oro har, ikastaro guztiek eskola-jarduerak dituzte, eskola-curriculum irakasteko era lagungarrian, eta baita aisia eta astialdiko jarduerak ere formalak ez diren alderdien osagarri eta eskolaren testuinguruan hainbeste aurreikusita ez dagoen esparruetakoak. Honako hauek aurreikusten dira: hizkuntzaren komunikazio-erabilera sustatzeko jardura akademikoak; atzerriko hizkuntzen irakaskuntzari aplikatutako teknologia berrien erabilpena; dramatizazio-tailerrak; eskulanak, dantza...; kiroletako eta astialdiko jarduerak; eta txangoak (bertan egiten diren ikastaroen kasuan soilik).

Programa ezberdinetan parte hartzeagatik familientzako kostu ekonomikoa 64 euro (4 egun) eta 80 euro artean dago, eguneko ikastaroen kasuan; eta 190 euro bertan egindako ikastaroetarako (programa, ostatu eta mantenuko gastu guztiak hartzen ditu barnean). Eguneko ikastaroek ez dute beren kostuan eguerdiko bazkaria sartzen.